

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Kamioien joan-etorria arazo latza bilakatu da

Aiurri astekariak bertako bizilagunen, Urnietako alkatearen eta Aldundiaren adierazpenak jaso ditu, auzia testuinguruan jartzeko asmoz / 2-3

Neguko ospakizun betean

Asteburu honetan Santa Eskea eta Kaldereroen etorrera; datorrean, Inauteriak / 5

"Baserritarron Laguna" izendapena eskuratu duen Zeberio andoaindarrak, ENBAren eskutik / 8-9

Aranguren Andoaingo eskolako txirrindulari gaztea Munduko ziklo-kros txapelketan ariko da / 13

kutxabank
MASTERS
TXAPELKETA 2024

OTSAILAK 3 LARUNBATA 16:30EAN
GALARRETA JA I ALAI HERRIAN

1. PARTIDUA (3 SETENA)
URRUTIA II · MARTIRENA vs
LOITEGI · APEZETXEA

MASTERS TXAPELKETA (30 TARTU)
ANSA II vs JUANENA

3. PARTIDUA (3 SETENA)
SEGUROLA · LARRAÑAGA vs
ALDABE · AZPIROZ

ORNA HENCH | EUREMONTA BIZIRIK | Orona | EUSKADI | 65 SUKIA | AGVÉRIVH AIURRI



Zebra-bidea etenik gabe gurutzatuz, protesta egin dute Zabaletako auzotarrek, behin baino gehiagotan. AIURRI

"Eguneko, 400-500 kamioi igaro izan dira gure etxe paretik"

JAVIER BARRIENTOS ZABALETAKO BIZILAGUNA

Lasarte-Oriarantzko bideari itsatsita bizi dira Zabaletako bizilagunak. Kalera atera dira azken boladan bertako herrikideak, egoera "jasangaitza" egiten baitzaie

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Haserre daude Zabaleta inguruko bizilagunak. Modu iraunkorrean, "zikintasuna, zarata eta arriskua" pairatu dituzte azken urteetan, herritik Lasarte-Oriara bidean joan-etorrian dabiltzan kamioiak direla eta. "Jasangaitza" zaie egoera. Hala, azken hilabeteetan, kalera atera dira, protestan, Urnietako Udalaren eta Foru Aldundiaren ateak jotzeaz gain. Egunero-egunero, lauhun kamioitik gora igarotzen dira Zabaletako kurba bikoitzetik. Plataforman dabil buru-belarri Javier Barrientos auzokidea. **Zeintzuk dira kamioien etengabeko joan-etorriak eragiten dizkizuen arazo nagusiak?**

Batez ere, arazo akustikoak pairatzen ditugu, etengabe, gure etxeetatik oso gertu igarotzen baitira kamioiak. Lurra eta hautsa dakarte berekin. Horren aurrean, berriki, arratsaldero Urnietako Udalak errepide-garbitza egitea lortu dugu. Etxebizitzetan, leihoetatik zein ateetatik gertu, pitzadura txikiak sortzen ari zaizkie bizilagun askori. Kamioien joan-etorriarekin lotzen dute askok. Zenbait aseguru-etxerekin egin dugu kontsulta eta baiezkua erantzun digute. Are gehiago, aipatu digute aseguru-polizek gora egin ohi dutela, pitzadurak eta zimendu-arazoak izateko arrisku handiagoko dagoelako.

Arriskugarritasunari begira, aldapa nabarmena du errepide horrek eta, jaitsieran, tarteka, oso azkar datoz kamioiak. Horregatik, sentitzen dugu, gidariaren edozein deskuidurekin eraikinaren kontra talka egin dezakeela kamioiak. Azken hori lausotu egin da zirkulazioa erregulatzeko jarri zuten semaforoarekin. Lehen, errepide horretan, maniobrarako tarte gabe gelditzen ziren bi kamioi elkar gurutzatzen zirenean.

Errepideak egiten duen kurba bikoitzetik gertu bizi den jendea da kaltetuena.

Dena dela, ez ditugu guk jasan, soilik, albo-kalteak. Izan ere, Langarda alboko biribilgunetik

sartzen dira kamioi guztiak. Ondorioz, Ermotegikoek zein Etxeberri ingurukoek ere nabariturako dute, hein batean.

Urnietako eta Lasarte-Oriako tartean dauden azpiegituretara joaten dira kamioi horiek guztiak: zerrategira edo egur birziklapenerako instalaziora, eraikuntza-hondakinen zabortegira eta eraikitze bidean diren etxebizitzetara. Lasarte-Oriako ez zien kamioiei baimenik eman beren herriko bideetatik joateko. Hori gutxi balitz bezala, beren herrian egiten ari diren auzo berrien eraikuntzarako kamioiak gure herritik igarotzea nahi du Lasarte-Oriako Udalak, irisgarritasun zaila argudiatuta. Azken horretarako baimena emana du Urnietako Udalak. Hortaz, Zabaletako pasabidea jarri diete, soilik, kamioi horiei guztiei aipatutako azpiegituretara iristeko. Ez dute, soilik, joateko bidea egiten, itzuli ere egiten dira.

Zenbat denbora daramazue egoera pairatzen?

Lehen kamioi handiak egur-fabrikakoak izan ziren. Edukiontzitxikiko kamioietan eramaten dituzte zerrategira egurrak, ondoren, xafla handiak egiteko bertan. Ondoren, kamioi handiek garraiatzen dituzte aipatutako egur zati luzeagoak. Hamahiru urte daramate azken horiek joan-etorrian, 2010etik. Ez dira asko igarotzen. Txikiak, gehiago.

Bestalde, orain dela lau urte, kamioi gehiago etortzen hasi ziren, eraikuntza-hondakinen zabortegia medio. Azkenik, Lasarte-Oriako etxebizitzetan obren kamioiak duela hiruzpalau urte hasi ziren gure etxe paretik igarotzen. Kasuren batean, eguneko, 400-500 kamioi igaro izan dira gure etxe paretik.

Nolako eragina dauka zuen egunerokoan?

Zerrategiko kamioiak goizeko 06:30ean hasten dira igarotzen. Eraikuntza-hondakinen zabortegikoak, 07:30-08:00ak aldera. Eraikuntza-lanetakoak, beranduago. Bata dela edo bestea dela, ez dugu atseden unerik. Intentsitate handiko momentuak egoten dira, tarteka, semaforoan lauzpabost kamioi pilatzen direnean.

Sarri, bolumen normal batean hitz egiteko aukerarik ez dute izaten errepidetik gertuen bizi diren herrikideek, kamioiek eragindako soinuagatik. Leihoak itxi behar izaten dituzte, askotan,

elkarrizketa bat eduki ahal izateko. Telebistari ere bolumena igo behar izaten diote...

Hala, bi ateak jo dituzue, bai Urnietako Udalarena, bai Foru Aldundiarena.

Hainbat bilera izan ditugu Urnietako Udalarekin. Jorge Segurado alkateak hitzez adierazi zigun konpromisoa hartuko zuela prozesua ahalik eta gehien bizkortzeko. Ez zaigu nahikoa iruditzen hori, urte dezente daramagulako albo-kalteekin. "Urte honetatik ez da igaroko", esan izan digu. Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean, ez dugu bilera hitzartzerik lortu. Hainbat hilabete daramagu hitzordua eskatzen. Azkenean, Lasarte-Oriako batzarkide batek agerraldi bat izapidetu digu Batzar Nagusietan. Oraindik ez dakigu zehazki zein egunetan izango den.

Urnietako Udalak behin betiko onartu zuen iazko urteko azken osoko bilkuran AIU32ko Plan Partzialaren aldaketa, Babilonia eremuan. Horren barruan kokatzen da Zabaletako kamioien auziari ipinitako irtenbidea, Langardako biribilgunetik Lasarte-Oriarantz abiatutako litzatekeen lotune berria.

Plan Partziala izatea ez da auzo egiteko konpromisoa erakustea. Egoera, pixka bat modu iruzurtian luzatzen ari dela ikusten dugu. Alkatearekin bildutako lehen aldian, neurri aringarriengatik galdetu genion, esate baterako, kamioiak beste errepide batetik joateko aukera plazaratu genuen. Aukerak aztertu ostean, horietatik posible bakarra Zabaleta dela adierazi zigun. Beldurra ematen digu beste proiektu batzuk egotea etorkizunean, oso eremu polita delako, hedatzen ari den eremua delako. Denbora tarte oso luzea daramagu horrela. Gure ustez, kamioien joan-etorria eten beharko litzatekeela uste dugu, harik eta Babiloniaren planaren harira proposatutako bide alternatiboa egin arte. Merezki dugu. Ekintzak ikusi nahi ditugu.

Epe laburrean, zein dira zuen aurreikuspenak?

Urnietako Udalak eskumena baimendu duten txostenak ematea espero dugu, baldintzak behar bezala betetzen diren ala ez ikusteko. Bestalde eraikuntza-lanak ahalik eta azkarren hastea eskatzen dugu. Aldundiari dagokionez, errepide hau erabiltzeko eman duen baimena ikusi nahi dugu. Bustitzea nahi dugu.

Auzotarren borrokaldia



Zabaletako zebra-bidean protesta egiten dute bizilagunek. AIURRI

Iralean hasita, protesta-ekitaldiak Zabaletako bidegurutzean dagoen zebra-bidea alderik alde zeharkatu izan dute, kamioien joan-etorria oztopatzeko. Ilara luzeak eragin dituzte, eta kamioi andana pilatu izan da Idiazabal kalean.



Jasangaizta zaie egunero bertatik igarotzen den kamioi kopurua. AIURRI

Mila sinaduratik gora jaso dituzte "Gaur gaurkoz, mila sinadurako langa gainditu dugu. Baina gehiago ere etorriko dira, ez baititugu guztiak bildu. Ia azalpenik eman behar izan gabe sinatzen du jendeak, jada, ezagun zaielako askori arazoa".



Agerikoak dira kamioien trafiko handiak eragindako albo-kalteak. AIURRI

Albo-kalteak Kamioi guztien joan-etorriaren ondorioz, etxebizitzetan, leihoetatik zein ateetatik gertu, pitzadura txikiak sortzen ari zaizkie bizilagun askori. Kalean, seinaleztapenean eta espaloietan agerikoak dira ondorioak.



"Badakigu auzoarentzat traba garrantzitsua dela"

JORGE SEGURADO URNIETAKO ALKATEA

Zabaleta auzoko aferan albo-kalteak ahalik eta txikiak izan daitezten lanean ari dela adierazi du Urnietak alkatea

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Foru Aldundira gerturatzeaz gain, Urnietako Udaleko atea jo dituzte Zabaletako bizilagunek erantzun eske. Zein da Urnietako Udalaren rola eta eskumena kamioien joan-etorriaren auzian?

Idiazabal kalea eta Lasarte-Oriarantzko bidea Foru Aldundiko eskumenak dira. Trafikoaren ardurak gurea da, herrigunearen parte den heinean. Lasarte-Oria eta Urnieta artean, hainbat azpiegitura daude (Urnietari dagokion lur-eremuan), eta errepide hori behar dute kamioiek. Egia da kamioi-karga oso handia dela, eta egunero Zabaletatik igarotzen dira. Arazo bihurtu da, pilaketagatik.

Harremanetan gaude Foru Aldundiarekin. Hainbat bider elkartu gara beraiekin, albo-kalteak ahalik eta txikiak izan daitezten.

Auzotarrak oso haserre agertu dira auzi honen aurrean. Zure ustez, Urnietako Udalak behar beste arreta eskaini al die bizilagunen premiei? Zenbait neurri hartu dira, aurrera begira, kamioien inpaktua arintze aldera. Azken Osoko Bilkuran azaldu bezala, otsailaren 15ean, esaterako, Lasarte-Orian lanean ari den eraikuntza-enpresari ez zaio errepideko joan-etorriaren baimena berri-



Jorge Segurado alkatea. AIURRI

tuko. Bestalde, Urnietan dauden enpresei dagokionez, lur-biltegiarena da trafikorik handiena sortzen duena. Hala, lan-ordutegia murriztuko zaio, goizeko 08:00etatik arratsaldeko 16:00etara. Era berean, % 70ean gutxiu beharko dute karga kamioiek, joan-etorri gutxiago egoteko.

Babilonia egitasmoaren garapenez hitz egiten ari gara, eta bertan eraikiko diren adinekoen egoitzaz DBHko eraikinaz eta etxebizitza multzoaz. Testu-guru horretan gertatzen ari da guztia. Ahaztu gabe, kamioien joan-etorria aspaldiko kontua dela.

Hori horrela, garapena ahalik eta azkarren gauzatzeko lan

egin da. Lurren okupazioa egin da: ur, errepide eta ingurumen-baimenekin ondu da proiektua. Hori guztia onartuta dago. Hurrengo pausua obra egitea litzateke. Geuk egiteko konpromisoa hartu genuen, aurreratzea. Hori eginda dagoenean, gastu hori eremu horretako sustatzaileriei igorriko zaie. Kezkaturata gaude trafikoarekin. Orduan, errepidea aurreratu nahi dugu, arazoa ahalik eta lasterren arintzeko.

Ahalik eta azkarren egin nahi dugu, jakinda administrazioaren denborak ez direla enpresa pribatuaren martxaren berdina. Ia milioi eta erdiko kostua duen obra batez ari gara. Kreditua eskatu beharko du, ziurrenik, Urnietako Udalak, obra egin ahal izateko.

"Ahalik eta azkarren" diozunean, zenbateko denbora-tarteaz mintzo zara?

Ez dugu data zehatzik. Aurten hasiko gara eta espero dut urtea amaitu aurretik bukatzea. Hala ere, uste dut, auzoan, murrizketak nabaritutako direla. Aurrekontuen itxiera apirilean izango da. Hortik aurrera, lizitazioa eta obra martxan jarriko ditugu. Badakigu auzoarentzat traba garrantzitsua dela.

Udalarekin eta enpresekin jarraipena egiten ari da Aldundia

Auzoan sortu den arazoa eta saihezbide berria dela-eta, Aiurri astekariak Aldundiaren adierazpenak jaso ditu

Erredakzioa URNIETA
Udalarekin eta enpresarekin gaia aztertu, eta eragina nola gutxiu aztertzen aritu da Aldundia, bizilagunei erantzun bat eman ahal izateko. "Bertako bizilagunen kexen ondorioz eta Udalak hala

eskatuta, bi administrazioen eta lur deposituaren titularraren arteko adostasuna medio, garraio hauek gutxitzeko aukerak adostu dira orain. Lurren % 70 bigarren lur depositu batera desbi-deratuko dira eta garraiatzeko

ordutegia arratsaldeko 16:00etara mugatuko da. Honekin, espero dugu, neurri handi batean, garraio astun horrek auzoan sortzen duen molestia gutxitzea. Neurriok otsailaren 15etik aurrera ezarriko dira".

Saihezbide berriari dagokionez, "Babilonia etxebizitzaren garapen urbanistikoaren ondorioz, bial berria eraikiko da. Eraikuntza-lana, eraikuntza-enpresari dagokio eta egiten den momentuan GFA-k hartuko du berorren titulartasuna".

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



GORA ETA BEHERA



Erreketa berria

Etxeberrieta plazaren ondoko edukiontziak erre zituzten, larunbat gauean. Gutxienez bi ibilgailu nabarmen kaltetu ziren, suaren eta suak eragindako beroaren ondorioz. Zoritxarrez, antzeko gertaera gehiegi ematen ari da Andoainen.



AIURRI



AIURRI



AIURRI



Errandonea, maila gorenekoa

Legazpin eta Amasa-Villabonan, Aurreku Ligako bi jardunaldietan irabazle izan da Jurgi Errandonea Oreja andoaindar gaztea. Oinkari dantza taldearekin ari da eta, esaterako, aurreko asteburuan Korrontzirekin ere aritu zen dantzan.

GORA ETA BEHERA



Otietako tunela

Andoaingo Udalak iragarpen argia egin du: Otietako tunela berritzeko lanak hastear dira, eta hilabeteko epean amaitzear egon daitezke. Gauzak horrela, udaberrira iristeko berrito zabalik izango da. Albiste bikaina herrigunetik Leitzarango bihotzeraino sartzeko ohitura duten dozenaka bizilagunentzat. Eta zer esanik ez oinez nahiz bizikletan hurbiltzen diren bisitarientzat. Irekiera gertu da, beraz.



AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Larramendi Bazkuneko hainbat kide lore-sorta jartzera hurbildu ziren, EH Bildu eta EAJ-PNVko ordezkariekin batera. AIURRI

Loreak, Manuel Larramendiren egunean

Manuel Larramendi euskal pentsalari eta euskaltzalea gogoan hartu zuen Larramendi Kultur Bazkunak, aurreko astelehenean. Duela 257 urte hil zen Loiolako Santutegian, 76 urte zituela

Erredakzioa ANDOAIN

Manuel Larramendi Garagorri –Aita Manuel Larramendi deituraz ezaguna– Andoainen jaio zen 1690eko abenduaren 25ean. Pentsalari eta idazle gisa lan oparoa eginda, Azpeitiko Loiolan hil zen, 1766ko urtarrilaren 29an. "El imposible vencido" (1729) eta "Hiztegi hirukoitza" (gaztelania, euskara, latina. 1745) dira, beste hainbaten artean, haren lanik entzutetsuenak.

Heriotzaren efemeridea baliatu zuen Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, haren aitortza egiteko. "Euskal Herriak ahaztu eta baztertu duen aita Larramendi aitzindari handia", Jon Unanue Bazkuneko zuzendariaren adierazpena da hori.

Bazkunak ohar bidez azaldu duenez, Larramendik eta bere idatziek zentsura jasan zuten kongregazioan bertan, estatu-arrazoiak zirela medio. Horrela, andoaindarra hil eta berehala, "Loiolako aita nagusiak Larramendiren langela guztiz eta

gotor ixteko jasota zuen agindua bete zuen; "ez dadila bere langelatik paper txatal bakar bat atera, ez dadila inor bertara sar" aginduta zion Valladolidetik Idiakez aita probintziaburuak. "Bidal egizkidazu denak bil-bil eginda honantz".

Josulagundian gerta zitekeenagatik uzkur zirela adierazi du Larramendi Bazkunak. "Beldu ziren, oso, Carlos III erregeak eta bere ministroek ez ote zituzten zigortuko, Jesusen Lagundia jotzen baitzuten Espainiako Erresumak bizi zuen arazo ugariren erantzule... Horregatik galarazi zioten Larramendiri azken urteetan ezertxo ere argitaratzea, asko zen arren idatzita zuena gaztelera

"EL IMPOSIBLE VENCIDO" (1729) ETA "HIZTEGI HIRUKOITZA" (1745) DIRA HAREN LANIK EZAGUNENAK

eta, berak Gandara gernikarri aitortu bezala, baita euskaraz ere. Isiltzekoa ez zen gizon hura isildu egin behar zen nola edo hala".

Zentsura ariketa horrek zer eragin zuen gogorarazi du Bazkunak: "Euskararen lehen gramatika, euskal literatura hegoaldean sortu eta bizkortzeko argitara emandako hiztegi handia, euskararen bere apologia eta beste hainbat lan... Euskaldunon kontzientzia sortu zuen gizona, aitzindaria, galbideari bihurtzea eragin ziona, mutu utzi zuten eta Valladolidera eramandako idatzietako asko betirako galdu ziren, baita euskarazkoak ere...".

Goikoplazan, haren omenez altxataka eskulturaren jarri zituzten loreak eta bertara hurbildu ziren elkarteko dozena bat bazkide. Eta haiekin batera Andoni Alvarez Lete Andoaingo alkatea eta Garazi Usandizaga (EH Bildu) eta Txitxu Ruiz (EAJ-PNV) zinegotziak.

BALORAZIOA

G2-AK KALTETUTAKOEN PLATAFORMA ANDOAIN

Kotxe-karabanak animo eta atxikimendu ugari jaso zituen



Bordaberritik abiatu eta bertan amaitu zen auto-karabana. AIURRI

Berrogeita zazpi ibilgailu atera baziren ere Borda Berri industrialdeatik berrogeita hamar inguru ibili ginen Andoaingo kaleetan errepide-sareari irtenbide duina emango dion proiektu bat aldarrikatzen.

Plataformarentzat, larunbatean Andoaingo kaleak zeharkatu dituen auto-karabanaren alde positibo bat izan da parte hartu zuten pertsonen Andoaingo sektore desberdinetatik etorritako herritarrek parte hartu zutela ikusirik, arazoa herri osoarena dela egiaztatu dezakegu.

Kotxe-karabanaren helarazi zenaren antzera, Andoainek auzo komunikatuak behar ditu, hesirik gabe eta errepide-hormarik gabe. Sorabilla, Alejandro Calonge eta Ama Kandida herriko auzoak direla, eta Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak lotzen dituen guneak errespetatu egin behar direla.

Hori eskatzen diegu N-1 eta A-15eko errepideen arteko loturaren konponbidea kudeatu behar duten politikoei: kontuan hartu ditzatela benetan andoaindarren beharrak eta ez dezatela onartu hain txarra ez den proiektua, ezta ere proiektu merkeena.

Andoainek proiektu alternatibo baten beharra dauka eta herriaren ordezkari politikoei proiektu on bat egitearen gastua inbertsio modura ikusi behar dute. Hori ere megafoniatik esan genuen.

Plataformako kideak oso pozik gaude egindako ibilbidean herritarren aldetik animo eta atxikimendu ugari jaso ditugulako. Horregatik diegu esandako guztiaren alde lan egiten jarraituko dugula! Erne, Andoain! Guztion eskuak eta ahotsak behar dira! Jantzi lehioak eta balkoiak banderolekin! Baita Inauterietan ere!



Askotariko mezuak irakur zitezkeen ibilgailuetan. AIURRI

Aiurriren aldeko mozioa, hizpide, Urnietan

Udaletxeko osoko bilkurara iritsi da berriro ere Urnietako Udal gobernu taldeak Aiurriri egindako ekarpen ekonomikoaren murrizketaren afera. Euskalgintza, oro har, eta Urnietako 18 talde eta elkarte gobernu taldeak erabakitakoaren aurka agertu dira

Erredakzioa URNIETA

Urte hastearekin batera, sinadura-bilketa abiatu zuten Urnietako gizarte-bizitzaren ordezkari diren hemeretzi eragilek. Bi asteburutan, guztira, 1.066 sinadura bildu zituzten, tokiko hedabideari babesa erakutsi asmoz. Hala, horrekin batera mozioa aztergai izan zen udaletxean. Mozioaren sustatzaileek ordezkariak duten hiru alderdiei helarazi zieten mozioa. Urnietako ordenantzaren arabera, mozio-proposamena aztergai bilakatzeko alderdi politiko baten babesa behar du, gutxienez. EH Bilduk eman zion bidea, Urnietako hemezortzi talde eta elkartek eskatutakoari men eginez. Gobernu taldea osatzen duten EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek ez zioten mozioari pasea eman eta plenoko bozketan ere aurka agertu ziren.

Herri eragileek ordezkari politikoei helarazitako mezuarekin erabat ados daudela adierazi zuen Euken Garmendia EH Bilduko zerrendaburuak. Hala, urnietarren eskakizunak mahai-gaineratu zituen, besteak beste: 2024ko aurrekontuetan kreditu aldaketa egitea Aiurriri bideratutako kopuruan. Bestalde, herri gintzan buru-belarri dabilzan eragileen laguntza ekonomikoa egunera dezala eskatu zioten Urnietako Udalari, bai eta, aurrerantzean, udal aurrekontuak osatu aurreko hilabeteetan, “antola dezala egitura elkarte horiekin guztiekin partekatu ahal izateko osatu bidean leudekeen aurrekontuetan Udal Gobernuak buruan darabiltzan asmoak”. Halaber, Urnietako Udalak Erroitz Baltzuekin eta Andoaingo Udalarekin batera hitzarmena osatzea eta onartzea eskatzen dute herritarrek, “onarituriko mozio horren jakinarazpena” egiteaz gain Erroitz baltzu mugatuari eta agiria sinatzen



Koldo Tapia, aurreko osteguneko plenoan. AIURRI

duten elkarteei, Andoaingo Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzari.

Mozioaren aurka bozkatu zuten EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek, euskal prentsara bideratutako diru-partida bere horretan ez dutela ukitu argudiatuta. Hori horrela, jakinarazi zuten Aiurriri egindako murrizketa euskarazko beste hedabide batzuetara bideratuko dutela, Urnietaren irudia tokikotasunetik harago ere zabaltzeko.

Aiurri, herri nortasunaren bultzatzaile

Galde-erreguen tartera itxaron behar izan zuten urnietarrek hitza hartzeko. Aipatu aferari dagokionez, Poxta Zahar elkarte Josu Sarasua izan zen lehena, eragileen izenean gobernu taldeak hartutako neurri murriztaileen aurrean desadostasuna erakusteko asmoz, “euskarak denon ahalegina aldarrikatzen duelako”. Jarraian, euskalgintzak azken hamarkadetan izandako ibilbidea azpimarratu zuen Koldo Tapia eragileak, Urnietan lur hartu eta

Aiurri astekariaren beharra nabarmentzeko. Euskararen presentzia astero guztien etxetara sartzeko dagoen bitarteko bakarria Aiurri dela azaldu zuen. “Zer nahi dugu? Hori ere atzera bota? Oso bide okerrean jarri garela uste dut. Euskarak denok behar bagaitu, jarri gaitezen bidean, elkarlanean, eta, lehen urrats gisa, aurki diezaigun irtenbidea Aiurriri”. Azkenik, Iosu Lopez Poxta Zaharreko kideak itxi zuen mozioa aurkeztu zuten eragileen hitzartzea. Herri nortasuna “asko bultzatzen” duen hedabidea da Aiurri, Lopezen ustez. Hortaz, hartutako erabakiak bigarren hausnarketa bat behar duelakoan da eragileak: “Bere horretan euskal prentsari bideratutako diru-partida murriztu ez bada ere, Aiurriri zuzendutako bai, eta nabarmen, gainera”.

Labur erantzun zien herritarren eskakizunei Jorge Segurado alkateak. Euskal prentsara bideratuko den diru-kopurua mantendu egingo dela aipatu zuen, bai eta euskarari zuzendutako aurrekontua % 5 igo dela argudiatu ere.

Plazaolako tunela eta pentsioak



Euken Garmendia hizketan, aurreko osteguneko plenoan. AIURRI

Aiurriren dirulaguntza eguneratzeko mozioaz gain, zer esana eman zuten beste zenbait gaiek urteko lehen osoko bilkuran, tartean, Urnietan eta Lasarte-Oria arteko Plazaolako bideak eta pentsio-sistemak. Hala, bi kasuetan, EH Bilduk bere mozioa aurkeztu zuen, eta, aldiz, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek berea. Bi kasuetan lehen pausoa Euken Garmendiaren koalizioarena izan da, baina gobernu taldeko bi alderdiek kontramozioa aurkeztu, EH Bilduren proposamenak gauzatu ezinik geratzen dira jeltzaleek eta sozialistek gehiengo osoa bermatzen duten zazpi boto dituztelako.

Plazaolako bideari dagokionez, ez da gaia udal ordezkarien artean azaleratzen eta eztabaidatzen den lehen aldia. Elkarriketak elkarriketa, ikuspuntu ezberdinak biltzen dira mahaiaren bueltan, gobernu taldearen eta oposizioaren artean. Eztabaida ez dago soilik udalgintzan. Izan ere, Gipuzkoako Batzar Nagusietan EH Bilduk tunela irekitzearen aldeko neurriak eskatu izan ditu.

Bide beretik, parez pare topatzen dute elkar bi aldeek pentsio-sistemaren eztabaidan. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Euskal Herriko pentsiodunentzako 1.080 euroko gutxieneko diru-sarreraren aldeko babesa adierazi zuen sutsuki Euken Garmendiak, herriko EH Bilduren izenean. Laburbilduz, Eusko Jaurlaritzarena baino, Espainiako Gobernuak kudeatu beharreko auzia dela erantzun zioten EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek, Toledoko Itunari eutsita, “pentsio sistema publikoaren alde”.

Herritarrek pleno aretoan, azken osoko bilkuretan

Gainerakoan, aipatu beharrekoa da azken bi Udal batzarraldietara hurbildu den jende kopurua eta herritarrek hitza hartzeko erakutsitako prestutasuna.



Urnietako
udala



AIURRIREKIN BATERA

Kantu Liburuxka

2024

LARRE-GAI N
TOLARE SAGARDOTEGIA
943 555 846 - 616 287 867

Ereñotzu
auzoa, 58
Hernani



MIZPIRADI 943 59 39 54
-SAGARDOTEGIA-



Leizotz , 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus

sagarra, sagarrondo, sagardoa

gure lurran estuki lotuta doa



sagardoa route Lokut Sagardoen Bilbua

EZ ZAITEZ EROTU!

HEMENDI ALDREDA ERRESERBATU ZURE MAHAIA KLIK DITEGAN

www.sagardoa.eus

943 336 811 - info@sagardoa.eus



Zatoz gure sagardotegira!
Erreserbak: 943 554 917 - 650 266 925

ALTUNA

Galarraga baserria, 5. Lategi. Urnieta



BURUNTZALDEA, sagardoaren lurraldea
KUPELA, sagardoaren hotela
HK10, sagardozaleen lagela

HOTEL **HK10** HOTELA

Hotel K10
943 337 357
info@hotelk10.com
Erratzu industrialdea. Urnieta



943 59 19 68

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

www.sidreriagaztanaga.com
info@sidreriagaztanaga.com

Irurain etxea
Buruntza
auzoa
ANDOAIN



O! OIANUME SAGARDOTEGIA

OIANUME
SAGARDOTEGIA - JATETXEA

oianume.com/eu - oianume@oianume.com
943 55 66 83 Ergoien, 18 - Urnieta



EULA
TOLARE SAGARDOTEGIA
URNIETA

943 552 744 - 647 437 703

www.eulasagardotegia.com



**RZA
BALA**

Tolare
Sagardotegia

943 69 07 74
www.rzabala.com
info@rzabala.com

Goiburu
auzoa, 5
ADUNA





Zeberioaren adierazpena eta ekitaldiko hainbat une gehiago jasota daude Aiurri.eus guneko argazkitegian eta bideoen atalean. AIURRI

Xabier Lasa HERNANI

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko (KONFEKOOP) zuzendaria den Iñaki Nublaren eskutik heldu zen Zeberioaren biografiaren azalpen txiki bat, ekitaldiaren hasieran; besteak beste, Zeberioek nekazal kooperatiben mugimendua suspertu eta indartzeko egindako lanak azpimarratu zituen.

Joxe Mari Zeberioek, ekitaldira ohar batzuk idatzita eraman bazituen ere, aitortu zuen irakurri beharrean bihotzetik mintzatuko zela Indiako jesuita baten aholkuari jarraituz, bere bizitzako pasarterik esanguratsuenak kontatzeko orduan. Eta halaxe egin zuen, hitz jario handiko eta gozokoa dela erakutsiz, ekitaldira hurbildu ziren erakundeetako ordezkariak, ENBAko nekazariei eta bera babesteko Oronako auditorioan bildu ziren senitarteko eta lagunei.

Umetan Goikoetxerri (Sorabilla) baserrian bizi izandako zenbait pasadizo kontatu eta gero, nekazaritzaren eta nekazarien aldeko ibilbide oparoa egiteko eraman zuen bokazioaz eta bidean edukitako laguntzaileez jardun zuen. Horrela, gaz-

Merezitako saria jaso zuen Joxe Mari Zeberio andoaindarrak

ENBA nekazal sindikatuak “Baserritarren Laguna” izendatu zuen Zeberio, Oronaren egoitzan ospatu zuen XXXII. Batzarrean. Sindikatuko kidez eta ordezkari politikoez gain, andoaindarraren senitarteko eta lagun ugari bildu zuen aitortza ekitaldiak

tetan baserritarren formazioko gau eskoletan ikasle izan zela adierazi zuen.

Eta 1968 aldera sentitu zuen inspirazioa aitortu zien entzuleei: “Orduan Gipuzkoan gazteei zer eskaintzen zitzaigun? Baserriko

lana, fabrikako lana... Eta ikasketeko gogoia zeukanari -horixen nire kasua-, baserritar mistoa izatea: fabrikari lan egin, baserrian lagundu. Horietakoa izateko izendatua nengoen ni etxean.

Baina gurasoei egundoko disgustua eman nien, esan nienean Bilbora ikastera nindoala eta ez nuela baserritar mistoa izan nahi, baizik eta, saiatuko nintzela baserriaren eta baserritarren alde egiten”.

Familia nekazaritzaren aldeko bokazioa

Ekonomiako ikasketak eginda, suerte handia izan zuela gogoratu zuen Zeberioek: “Ikaskide guztiek, enpresetara, bankuetara... jotzen zuten lan bila. Baina nik argi neukan nekazaritzari lotutako lanbidea nahi nuela. Eta horretan, “Amabirgina” azaldu zitzaidan: Candido Iturrriaga eta Maria Dañobeitia Fundazioarekin harremanetan jarri nintzen, eta arduradunek babestuko nindutela agindu zidaten, baldin eta familia nekazaritzaren alde jarduten banuen”.

1980an Jaurlaritzan, nekazaritza sailean lanean Felix Ormazabalaren eskutik hasi zela esan zuen segidan. Nonbait, Karrantzako bade baten aholkuari egin zion kasu: “Gu, orduan, sindikalista samarrak ginen, eta kontrako jarrera genuen; bada, abade hark esan zidan ezin zela protestan eta aldarrikatzen ibili beti, inplikatzeko ordua iritsi zitzaigula; Jaurlaritza sortu berria zela, eta konpromisoko gazteak behar zirela”.

Zeberioek Jaurlaritzan, nekazaritza sailean martxan jarritako egitasmoak aipatu zituen, eta, batez ere, etorkizunari begira sektoreari lotutako diagnostikarekin aipatu zuen. Nekazaritzan geroztik errealtatea nola eboluzionatu duen erakusteko, anekdota txikia, baina adierazgarria kontatu zuen. “1982an, Itxasur azoka antolatu genuen Bilbon, eta, gogoan dut, orduan, behirik onenen produkzioa zein zen: 4.500 litro urteko. Horiek behirik onenak! Gaur, behirik txarra ere ez da maila horretan geratzen. Zenbat egin den aurrera!”.

90eko hamarkadaren hasieran, munduan erakundeak, antolaketak ereduak, ikuspegiak... sakon ari zirela aldatzen gogoratu zuen Zeberioek, eta testuinguru historiko eta global horretan, 1994an, Euskal Herrian zenbaitzuek Munduko Landagunaren Foroaren ideiarekin inguruan mugitu zirela, familia nekazaritza bultzatzeko. Abian jarritako bide horretan, Erroman kokatzen den Elikadura eta Nekazaritzako Nazio Batuen Erakundeko agentziak eta Jaurlaritzak berak aurreneko urtean ipinitako eragozpenen gainetik aurrera egin zutela aitortu zuen, pozik.



Zeberio familiako kide ugari bertaratu ziren aurreko ostiraleko ekitaldira. Argazkian, Zeberio eta Gantzarain familietako hiru belaunaldi ageri dira. AIURRI

Horrela, 1999an aipatu Munduko Foro sorreraren gidaritza eman zuen. Gaur egun, mundu osoko 35 milioi nekazarien ordezkari diren 51 eragilez osatutako sarea da Munduko Landa-gunearen Foroa, eta bere lan eskergaitzaren ondorioz. Familia Nekazaritza kontzeptua eta aldarria nazioarteko agenda politikoan txertatzea lortu zen. NBERekin nahiz FAOrekin (Elikadura eta Nekazaritza Erakunde) aurrez aurreko harremana lortu du erakunde horrek, eta Familia Nekazaritzaren Hamarkada onartu zen 2017 urteko abenduan.

Eugenio Arregi eta Sabino Irulegirekin eskertuta

Baserría, baserritarrak eta beren familien duintasuna aldarrikatu nahi horretan Zeberio makina bat bidelagun eta aholkulari izan ditu, eta horietako zenbait hartu zituen gogoan Hernaniko ekitaldian. Besteak beste, bi andoaindar hartu zituen ahotan: Eugenio Arregi apaiza, “berari asko zor diot, gaztetan itsatsi zizkidan baloreengatik”, eta Aldundian nekazaritza arloan jardun zuen Aranaztegiako Sabino Irulegi, “adiskidez izateaz aparte, aholkularia izan dut beti, hari kasu eginda ondo ibili naiz munduan”.

Eskertzen atalean, familiak berari urtetan erakutsitako eskuzabaltasuna ere gogoan eduki zuen Zeberio. “Zenbat bilera, zenbat gau-falta munduan

zehar ibiltzerakoan... Arantza-ren emaztearen eta hiru alaben ulermenik eta indarrrik gabe ez nuen ezer egingo”.

Aitormena, ordezkari politikoen aldetik ere

Arantza Tapia Jaurlaritzako sailburua eta Eider Mendoza diputatu nagusiak ere esker oneko hitzak izan zituzten omenduarekin. Tapiak, Zeberio bere ibilbidean bertako ekoizleekin eta ekoizpenekin erakutsi izan dituen konpromisoa eta inplikazioa kontsumitzaileentzat ereduagarriak direla adierazi zuen. “Balore horiek sustatu behar ditugu bizi dugun gizarte konplikatatu honetan, eta alde horretatik, Jaurlaritzak bertako okelaren aldeko Bonokela kanpaina martxan jarriko du. 15 euroko kontsumoa eginez gero, beste 5 euroko bonua eskuratu ahal izango da, batetik, bertako ekoizleari laguntzeko, eta, bbestetik, kontsumitzaileok ere bertako okelaren alde egin dezagun”.

Eider Mendoza Gipuzkoako Diputatu Nagusiak Tapiaren ildo beretik joan zen Zeberioaren nortasuna eta ekimena nabarmentzerakoan: “Joxe Mari Zeberio hiru ezaugarri azpimarratu izan ditu, batik bat: eskuzabaltasuna, konpromisoa eta elkarlana”. Zeberiori eskainitako aitortza, Euskal Herriko baserritarri luzatu nahi izan zien Mendozak, “natura eta ingurumena zaintzeko, elikadura osasungarria eskaintzeko eta gure

izaera propioari ekarpena egiteagatik”.

Gizartea, ingurumena eta ekonomia

Iñaki Goenaga ENBAko presidenteak nekazarien jardueraren jasangarritasuna aldarrikatuz eman zion itxiera batzarrari. “Hiru ikuspegietatik (gizarte, ingurumena eta ekonomia) jasangarria izan behar” duela gogoratu zuen. Jasangarritasun sozialaren alorrean kokatu zuen familia Nekazaritzaren defentsa, “lurraldean barreiatuta gauzatu den nekazal jarduera, makroustialekuen eredutik urruti”.

Hausnarketa horrekin lotu zuen belaunaldi aldaketaren erronka Goenagak. Ingurumenari dagokionez, mendiko nekazaritzaren eredu gauzatzen dutela azpimarratu zuen Goenagak, “natura baliabideak zaindu eta ondorengo belaunaldietara transmititzeko moduan lurra landuko duena”. Eta azkenik, ekonomiari dagokionez, adierazi zuen nekazal jarduera errentagarria ez bada ez dela jasangarria izango. Gehitu zenez “jasangarritasun ekonomikoa oinarritzotzat jota, urte osoan, abeltzaintzako hiru azpisektore nagusietan jardun gara buru belarri (behi esnea, behi okela eta ardi esnea), baina, egiari zor, behi okela izan da, gure buruhauste nagusia, batez ere, ekoizpen kostua eta jasotako ordainaren arteko arrakala ikusita”.

Omenaldi ekitaldia



Zeberio ENBAko lehendakari Goenagarekin batera. AIURRI

"Baserritarron Laguna" izendapena Karlos Irazu Larraulgo artisauek egindako egurrezko meta jaso zuen orogarri gisa Joxe Mari Zeberio. Saria jaso berritan, hitzalditoxa eskaini zien Orona eraikineren hurbildutakoiei.



Arantza Gantzarain emaztea alboan zuen, ekitaldian. AIURRI

Ahaldun Nagusiaren babesa Edier Mendoza Gipuzkoako Ahaldun Nagusia ekitaldira bertaratu zen eta esker oneko hitzak eskaini zizkion Zeberiori. Jardunbide ereduagarria izan zela azpimarratu zuen Mendozak.



Imanol Goenaga, Joxe Mari Zeberio eta Arantza Tapia. EAJ-PNV

Eusko Jaurlaritzaren babesa Arantza Tapia Sailburua hurbildu zen Galarretara, eta harekin batera lankide eta Andoaingo jeltzaleen buruzagi den Imanol Goenaga. Mendozak bezala, Tapiak ere eskerroneko hitzak eskaini zizkion Zeberiori.



Kanpalekua jarri ohi dute Goikoplazan, herrian barrena kalejiran abiatu aurretik. AIURRI

Kaldereroak iristear dira

Neguko jaien bigarren ospakizuna da Kaldereroen etorrera, Puska-Biltzea egiten denetik. Ostiral arratsaldean, Ondarreta ikastetxeko ikasleak irtengo dira kalejiran. Eta, larunbatean, herri osoari zabalduko festa ospatuko da

Erredakzioa ANDOAIN

Hungariako Kaldereroen konpartsa errotuta dago Andoaingo kultur bizitzan, eta, aurtengoan ere hiru hitzordu iragarri ditu, asteburuari begira. Ostiral arratsaldean, 15:00etatik aurrera, Ondarretako ikastetxeko irakasle, ikasle eta gurasoek Konpartsa koloretsua osatu, eta kantu eta zartagi hotsak zabalduko dituzte kaleetan barrena. Kale Nagusian barrena ibili eta gero, Ondarretako jolastoki estalira itzuliko dira; bertan, kanpalekua ipiniko baitute. Gora Kaletxiki Txaranga bidelagun izango dute, Joxe Mari Oiartzabalek zuzenduta.

Hurrengo egunean, larunbatean, bigarren saioa etorriko da, Hungariako Konpartsa Andoainera helduko baita, aipatutako txarangak antolatuta oraingoan. 17:00etan Berrozpen jarri dute

Kaldereroak Andoainen

Otsailak 2, ostirala

15:00 Ondarretatik abiatuko dira kalderero txikiak.

17:00 Kalderero txikien festa Ludotekan.

Otsailak 3, larunbata

17:00 Kaldereroen irteera: Kaletxiki, Goikoplaza, Kale Nagusia eta Zumea. Itzulera bide beretik.

hitzordua. Juan Bautista Bataiatzailea Zahar egoitzara hurbildu, eta bertan bizi diren egoiliarrei eta langileei lehen-

biziko saioa eskainiko diete. Handik irten eta arratsaldeko 18:00etarako Goikoplazan kanpalekua jartzeko asmoa dute. Musika saio nagusia eskaini eta gero Andoainera hurbildutako Erreginak eta bere laguntzaileak mintzaldia egingo dute udaltxeko balkoitik. Esan beharrik ez dago, urtetako usadioari jarraiki, Andoaingo zenbait gora-behera umorez eta zentzu kritikoz azalduko dituztela. Luziano Uribesalgo eta Joxean Well murgilduko dira bi pertsonaia horien azaletan.

Goikoplazan saio nagusia egin ostean, Kale Nagusian barrena abiatuko dira, eta Zumea plazan egingo dute azken ekitaldia. Iaz, familia gazte ugari batu zen kalejirara. Ezinbestekoa baita herritarren parte-hartzea, Inauterien atariko festa aurrera atera dadin.

Inauteriak, hilaren 8an hasita

ANDOAIN

Otsailak 8, osteguna

14:45 Ospakizuna ikastetxe bakoitzean abiatuko da.

16:15 Pregoia eta txupinazoa Udaletxeko balkoitik. Eguraldi txarrarekin, Ondarreta Ikastetxeko jolasleku estalian. Gora Kaletxiki, Gauerdik eta trikitalariak lagunduta.

17:00 Musika Eskolako saioa Goikoplazan.

17:30 Maskara tailerra Gazte Lokalean.

18:00 DJ Porru Goikoplazan.

18:30 Olagain txistulariak Goikoplazatik abiatuta.

Otsailak 9, ostirala

17:00 Disko festa Ludotekan.

17:00 Lebiton konpartsa, Basterotik abiatuta.

17:30 Bingo berezia Anbrosia Olabiden.

18:00 Kale ikuskizuna Zumea plazatik Goikoplazaraino.

21:30 Malkogariyak.

00:00-02:00 DJ Ezekiel Goikoplazan.

Otsailak 10, larunbata

11:00 Ospakizunaren hasiera.

17:00 Inauteri desfilea.

22:30 Nemux DJ Goikoplazan.

Otsailak 11, igandea

12:00 Jaiaren bigarren eguna.

14:00 Herri bazkaria Goikoplazan. Lekua aurretik hartu behar da, Basteron.

16:45 Txarantukada elektrotxaranga.

19:30 Sardinen segizioa, Goikoplazan hasita.

20:30 Sardinen ehorzketa Goikoplazan.

URNIETA

Otsailak 10, larunbata

"Munduko Jaiak", horixe izango da Urnietako 2024 Inauterietako gaia. Eta ideia horren bueltan dagoeneko ari da bat baino gehiago karroza eta mozorroak prestatzen. Egun osoko ospakizuna izango da, bakarra, baina hori bai, parte-hartzailea.

Inauterik
MUNDUKO FESTAK
Otsailak 10, larunbata

12:30 Poteoa Matxotik
14:30 Herri bazkaria San Juan plazan
(Januaría etxetik, edaria egongo da.
Tiketak Frontoien ta Matxon, 4€)
Jolasak bazkalostean
18:00 Kitadelpare txaranga

Santa Ageda bezperako erronda, bi udalerrietan

Manttale taldeak goizez biziberrituko du usadio zaharra, ohiturazko kantak eta koplak berriak eskaintzeko baliatuko dutena. Andoainen, bestalde, Goiburun ibiliko dira auzotarrak eta arratsaldez Manuel Larramendi Kultur Bazkunekoak

Erredakzioa ANDOAIN / URNIETA

"Zorion, etxe hontako denoi! Oles egitera gatoz, aterik ate ohitura zaharra aurten berri-tzeko asmoz". Otsaileko lehen igandearekin bat egingo du Santa Ageda bezperak, eta koplak hori maiz entzungo dugu Andoainen eta Urnietan. Belau-naldi berriei begira, zer esan nahi du Oles adierak? Hona Labayru fundazioak emandako azalpena: "Oles ta Oles dira Eguberrietan eta urtean zehar aldi markatuetan koplariak eske-errondetan kantatzen dituzten lehen hitzak. Oles berba hau ahaztu samar daukagu

euskaraz. Aspaldian lehenengo agurra egiteko zen, eta errespetu eta begirune handia adierazteko ere erabiltzen zuten. Gaur egun, eske-kantuotatik kanpo nekez agertzen da. Horregatik, oles egitea edo oles ta oles ibiltzea gehiago erabiltzen da etxerik etxe eta auzorik auzo koplari ibiltzea adierazteko".

Tradiziozko kantuak eskaintzearekin batera –Andoainen, "Otso beltza" esaterako–, beren begi aurtengorako idatzitako koplak abestuko dituzte Urnietan. Goizez ariko dira Urnietan, eta goizez nahiz arratsaldez, Andoainen.

Hitzordu hirukoitza

URNIETA

11:30 San Juan plazatik abiatuta, kantu-erronda egingo dute.

ANDOAIN

09:00 Kantu-erronda Goiburun, auzotarren eskutik.

18:00 Doktor Huitzi kaletik abiatuta, Goikoplazarainoko bidea egingo dute.



Herritar taldea Urnietan, Santa Eskea kantu-errondan. AIURRI



Goiburuarren taldea larunbat goizean abiatuko da kantu-errondan. AIURRI

ZAIN DUGU AGATE DEUNA!

Urteroko usadioari helduko diogu eta berriro Andoaingo kale eta plazetan barrena ibiliko gara.

IRTEERA:

- Otsailak 4, igandea. **18:00**
Doktor Huitzi kalea, 15. Bazkunaren egoitza.



MLARRAVENDI

KOMUNITATEA

UKE ESKUBALOIA
URNIETAAsteburuko
jardunaldiaren
laburpena

UKEko jokalaria, lehian. UKE

Emakumezkoen senior taldeak garaipen argia eskuratu zuen Borda Ardoak taldearen aurka (26-10). Gizonezkoen senior taldeak, aldiz, gutxiengoagatik galdu zuen (20-19).

Urteko lehen garaipena eskuratu zuen Urnieta Quel Abogados emakumezkoen taldeak. Arazo handirik gabe garaitu zuen Borda Ardoak ZKE taldea (26-10). Erritmo gutxiko norgehiagokan, minutuak aurrera egin ahala, gorritxoak nabarmen aldentzen joan ziren markagailuan; atsedenaldira, 7 goleko aldearekin iritsi ziren. Bigarren zatian ere dinamika antzerakoa izan zen eta alde handiagoa lortu zuten.

Urnieta Artola Harategiak, mutiletan, ezin izan zuen Arrasate garaitu eta gol bakarragatik galdu zuen (20-19). Partida osoa parekatua egon zen, eta maila oso onean jokatu zuten, bai defentsan eta baita erasoan ere. Hala ere, azken txanpan, xehetasun txikiek garaipenera eramane zuten Arrasateko taldea.

Jubenil mailan, neskek gol bakarragatik galdu zuten Hernaniren aurkako derbian (14-15). Norghegiagoka parekatua izan zen, baina, seniorretan bezala, xehetasunek balantza aldarazi zuten, Hernaniren alde.

"Jokalariek maila ona eta heldutasuna erakutsi zuten"

IOSU ETXEBERRIA, FERNANDO DUARTE LEIZARAN KADETE MAILAKO ENTRENATZAILEAK
Denbora gutxi daramate entrenatzaile lanetan, eta taldea mailaz igotzea lortu dute. Oso pozik agertu dira lortutakoarekin, eta emozioz ekin nahi diote aro berriari

Mikel Arberas ANDOAIN

Denboraldi berriari ekin berritan,
zein izan zen taldearen jomuga?

Gure nahia Euskal Ligarako igoera faserako sailkatzea izan zen. Helburu zaila jarri genion gure buruari, baina, gutxienez, taula erdiko postuak gainditzea ziurtatu nahi genuen. Hortik aurrera, ahal genuen guztia egiten ahalegindu eta sailkapen fasean sartzea genuen xede.

Azkenean, denboraldi osoan, sailkapeneko gainaldeko postuetan lehiatzen aritu gara; esango genuke, ez garelako 3-4 postuetatik jaitsi. Ez da lan makala. Hala ere, lehen postuetako lehia handia izan da, talde guztiek antzerako maila baikenuen. Orotara, 14 norgehiagoka jokatu ditugu, horietatik 11 irabazi, bi galdu eta bakarra berdindu dugu; soilik gure gainetik zeudenen aurka galdu genuen.

Nola gogoratzen duzue igoera?

Sutsua izan zen, izugarria. Hiru egunez joan-etorrian aritu gara Basaurira, autobusean; ostiral arratsaldean eta larunbat zein igande goizean. Eguneko partida bat jokatu genuen, atsedenek gabe. Kontuan eduki behar da, asteko partida bakarra jokatzeko ohituta gaudela, eta, bat batean, hiru partida jarraian jokatu behar izan genituela, presio handiarekin, jakinda Euskal Ligarako igoera jokoan zegoela. Gure jokalariek maila ona eta heldutasuna erakutsi zuten; oso egun biziak eta politak izan ziren.

Giro ona al zegoen igoera faseko partidetan?

Bai, jakina. Batez ere guk girotzen genuen kantxa, Andoaindik jende asko joan baitzen Basaurira. Eguneroko autobusa goraino betetzen zen. Izugarria izan zen.

Zer egin behar da horraino iristeko?

Gure kasuan, lurraldeko ligako lehen hiru postuetan sailkatu behar ginen. Horiek horrela, hirugarren postuan gelditu ginenez, igoera faserako jautsi egin genuen.



Leizaran eskubaloiko kideak Euskal Ligan ariko dira. LEIZARAN

Asko entrenatzen al duzue?

Nahi baino gutxiago. Gauden mailan ez genituzke soilik astean bi entrenamendu eduki behar. Kantxa erdiarekin entrenatzen dugu, astean bi ordu eta erdiz. Talde askok entrenatzen dute Allurralden, kantxa bakarra dago eta guztien artean banatu behar dugu; ez dago leku nahikoa guztiontzako. Gu bezala daude gaitzontzekoak ere. Entrenatzaile gisa, bigarren kantxa edo entrenamendu gune bat egitea eskatu nahiko genioke udaletxeari. Horrenbeste talde zein kirol diziplina egonda beharrezkoa ikusten dugulako, bai ordutegiari eta baita lekuari begira ere. Ideia bat egiteko, Zarautzeko Euskal Ligako taldeak astean lau aldiz entrenatzen du, guk, berriz, bitan. Pentsa ezazue ganoraz entrenatuko bagenu noraino iristeko aukera edukiko genukeen.



Etxeberria eta Duarte. AIURRI

Euskal Ligara igoera lortu zenute-
neko mementoa nolako izan zen?

Emozioz beterikoa. Oso pozgarria. Hasiera batean, ez genekien zer topatuko genuen Basaurin, baina, ohartu ginen, gure antzerako mailako taldeak zirela. Horrez gain, abantaila txiki bat sumatu genuen; ez gintuzten sekula jokatzen ikusi, eta eurak ere ez zuten gure mailaren berri. Beraz, hasierako aurreikuspen guztiak gainditu eta Andoainera ilusio handiarekin itzuli ginen.

Kadeteak ere pozarren egongo ziren,
ezta?

Zer esan. Gazteak oso oso pozik zeuden, gurasoak eta ikusleak bezalaxe.

Zer nolako aurreikuspena duzue
Euskal Ligari begira?

Ez du zerikusirik izango orain arte egindakoarekin. Maila oso altuko taldeen aurka lehiatzeari ekingo diogu eta gehiago bidaia-tu beharko dugu, batez ere, Bizkaia aldera. Horiek horrela, gure helburua mailara eustea eta taula erdialdean kokatzea izango litzateke. Esaterako, hamar partidetatik lau irabaztea ederra izango litzateke.

Entrenatzaile gisa erronka handia
al da maila berri horretan murgiltzea?

Bai. Entrenatzaile lanetan denbora gutxi daramagu eta, oraindik, asko dugu ikasteke. Beraz, Euskal Liga ikasteko erronka bat izango da eta, era berean, gure gaitasuna zein taldearena zukutzeko unea.

KOMUNITATEA

SALESIAR IKASTETXEA
URNIETAKirolaren Eguna
Salestar
Ikastetxean

Salsamendi. EITB

Salestarrak Magale Urnieta eskolan, On Bosko astearren baitan, ikasleek errendimendu handiko kirolarien bisita jaso zuten joan den astelehenean. Ander Vilariño auto-gidaria, Jon Salsamendi Orio Arraun Elkarteko entrenatzailea eta Oskitz Aguilari igerilaria DBHko Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikaslearen aurrean beren bizi esperientziak eta ikasgaiak azaltzen aritu ziren.

Eliteko kirolariek txikitatik arrakasta izan dutela pentsatu dezakegun arren, Jonek eta Oskitzek arraunean eta igeriketean ez zirela nabarmentzen adierazi zuten. Denborarekin bilakatu dira erreferente, urteetako lan, entrenamendu, motibazio eta kirolarekiko pasioaren bidez.

Ikasleei helarazi zieten mezu nagusietako bat honako hau izan zen: arrakastarako bidea ez du beti garaipenak markatzen. Porrotak garaipenak baino ohikoagoak dira eta esperientzia bakoitza, positiboa edo negatiboa izan, ikasteko aukera paregabea bilakatzen da.

Bakoitza berean saiatzea eta zailtasunak gainditzea oso garrantzitsu dira norberaren hazkunde pertsonalean.



Irati Aranguren. AIURRI

Irati Aranguren Munduko txapelketan ariko da, asteburuan

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Txirrindulari Eskolak ordezkari bat izango du asteburuan jokatu den Munduko Ziklo-kros txapelketan. Junior mailan Irati Aranguren deitu dute parte hartzera. Txekiako Taborren izango da eta, okerrrik ezean, bertan egongo da Aranguren. Junior mailako txanda larunbat honetan izango da, goizeko 11:00tan hasita.

Dagoeneko ezaguna da Aranguren, urte osoan bizikleta gainean nabarmentzen ari delako. Bereziki, errepidean eta ziklo-krosean. Udazkenean hasita, burubelarri murgildu da ziklo-krosean. Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Espainiako txapelketetan parte hartu ostean, Europakoan parte hartu zuen. Pont-Châteauan 39. postuan sailkatu zen, urrian. Bi erorketa izan zituen proba berean. Larunbat honetan munduko txapelketan ariko da eta, beraz, ziklo-krosean egon daitezkeen proba garrantzitsuenetan parte hartu duela esan daiteke.



Artxiboko irudia. ZKE

Garaipen berriaren bila, asteburuko jardunaldian

Erredakzioa ANDOAIN

Euskadiko senior emakumezkoen txapelketan, 1. mailako ligaren jardunaldi berria jokatu da asteburuan. Egiaren kantxan jokatu dute andoaindarrek larunbatean, 20:00tan hasita. Sailkapenari begira, donostiarrak garaitzeko moduan izan daitezke. Kantxan erakutsi beharko ustezko nagusitasun hori.

Aurreko asteburuan Elgoibar eta Leizaran arteko partida jokatu zen Allurralden. Ligan erakusten ari diren parekotasuna handia da. Sailkapenean parez pare daude:

4 Elgoibar: 13 puntu, 5 irabazi, 3 berdindu, 4 galdu.

5 Leizaran Lanbroa: 13 puntu, 5 irabazi, 3 berdindu, 4 galdu.

Zurrut saski taldea, senior mailan

Senior gizonetzkoan 3. mailan ari da Zurrut taldea. Lidergotzan dira, azken partida galdu arren (Zurrut 44-51 Antigua).



Artxiboko irudia. UKE

Urnieta KE futbol taldeko lehen taldeen jardunaldi berria

Erredakzioa URNIETA

Berdintasun handikoa izaten ari da Gorengo mailako liga. Hurrengo aurkaria, Roteta, hirugarren postuan sailkatuta dago. Eta Urnieta, aldiz, hamalagarrenean. Garaipenei erreparatuta, 7 lortu ditu Rotetak. Urnietak, bere aldetik, 5. Igande honetan Martutenen jokatu dute, iluntzeko 19:00tan hasita.

Gorengo Erregional mailako emakumezkoak

Bederatzi taldeko ligan, bi maila direla dio sailkapenak. Bergara, Segura, Goierri Gorri B, Zestoa eta Aiztondo lehen taldeen dira 24tik gorako puntuaketa-rekin. 12 puntura dago Urnieta, eta Orioko, Lagun Onak B eta Ilintxa atzerago oraindik.

Bigarren taldeko lehen postu hori indartzen jarraitzeko aukera du Urnietak, igande honetan goizeko 11:30etik aurrera. Sailkapeneko azken aurreko postuan den Lagun Onak B hurbilduko baita Urnietara. 3 puntu lortzeko aukera berria.



Artxiboko irudia. ZKE

Laugarren garaipena jarraian eskuratu nahi du Leizaranek

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako gizonetzkoen 1. lurraldeko txapelketan bigarren postuan sailkatuta dago Andoaingo taldea. Mugarri berria jar dezake asteburuan: laugarren garaipena jarraian eskuratzea.

Aurrealdean jarraitzeko nahitaezkoa baita irabaztea. Legazpi liderrak partida bakarra galdu du, eta Leizaran taldeak bi. Horixe da sailkapenaren goiko aldean dauden bi taldeen arteko ñabardura. Gainerakoan, sartutako eta jasotako gol-kopuruan, oso antzera dabilta.

Urnieta, Elgoibar eta Soraluze garaitu ostean, Arrasateren aurka (larunbatean, 18:30ean hasita) laugarrena lortu nahi dute.

Ganbarako Saskibaloi partida bakarra etxean

Junior mailako partida bakarra dago astebururako iragarrita. Rep. Justino Interren aurka ariko da, larunbatean (10:30).



Imanol Ansa. AIURRI

Ansa II bigarren urtez jarraian Masters-a irabazten saiatuko da

Erredakzioa URNIETA

Azpiroz, Juanenea eta Ansaren artean erabakiko da Kutxabank Masters Txapelketa, lehenak aurreko asteburuan Barrenetxea IV garaitu ostean (23-30). Oriamendiko kronika irakurrita, zera ageri da: "Azpiroz merezimendu osoz gailendu zen. Barrenetxea IV.a baino freskoago bukatu zuen, eta kantxan oso ondo mugitu izan zen".

Txapela erabakitzeko ligaxka, asteburuan hasita

Larunbat honetan, 16:30ean hasita, ligaxkaren lehen partida jokatu da Galarretan. Ansa II-Juanenea elkarren aurka ariko dira. Azpirozek adi jarraituko du partida, hurrengo asteburuan bere txanda iritsiko baita. Ligaxka hiru partidatarra jokatu da, hurrenez hurren, otsailaren 3an, 9an eta 17an. Finala, berriz, otsailaren 24an jokatu da. Txapela bigarren aldiz jarraian eskuratzeko aukera du urnietarrak. Iaz, Barrenetxea garaitu zuen finalean.

Etxarri, pistako erregina

TXIRRINDULARITZA Espainiako kopako eliminazio saioa, puntuazioa eta scratch probak irabazi zituen Izaro Etxarrik, aurreko asteburuan. Tafallako belodromoan lortutako emaitzei esker, lehenengo jarraitzen du Espainiako kopako sailkapenean. Andoaingo Txirrindulari Eskolako nesken balentria berria da Etxarrik lortu duena.



AIURRI

Bitik bi garaipen nahi ditu Euskaldunak, Ubitarten

Gizonetzkoen Gorengo mailan bigarren partida jarraian jokatu du Euskaldunak, Ubitarte zelaian. Aurrekoan bezala, oraingoan ere hiru puntuak lortu nahi dituzte. Lortuz gero, sailkapenean gorantz igotzeko garrantzia handikoa izango dira.

Aurreko asteburuan sailkapenean aurretik doan Urki taldea 4-2 garaitu zuen etxean, Euskal-

duna taldeak. Eta larunbat honetan, 16:30ean hasita, sailkapenean atzetik datorkion Soraluze garaitu nahi du.

Bitik bi Ubitarten irabaztea lortuz gero, urrearen parekoak lirerateke 6 puntu horiek.

Euskalduna une honetan seigarren postuan da sailkapenean, 28 punturekin. Aurretik ditu Ikasberri (29) eta Urki (30). Mondragon liderra alde batera utzita (42), gainerako lehen sailkatuak gehienez ere 4 puntura daude.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 1

ANDOAIN Erakusketa

Jon Juarez ilustratzailea.
Bastero, erakusketa gela.

ANDOAIN Deialdia

Basteroko taberna kudeatzeko lehiaketa zabalik dago. Epea hilaren 19an amaituko da.
Informazioa: Bastero.

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketa martxan da.
Oinarriak: Urnieta.eus.

OSTIRALA 2

ANDOAIN Musika klasikoa

Natalia Tchitch eta Gloria De Piante.
20:30, Bastero.

LARUNBATA 3

ANDOAIN Kaldereroak

Arratsaldean hasita, ospakizuna.
17:00, Kaletxikitik abiatuta.

IGANDEA 4

ANDOAIN Santa Eskea

Goiburuko auzotarren erronda.
09:00, Ermita aurrean.

Larramendi Bazkunaren eskutik.
18:00, Dr Huitzitik abiatuta.

URNIETA Santa Eskea

Kantazaun taldearen ekimenez.
11:30-14:00, San Juan plaza.



Andoaindarrak Euskal Ligarako sailkapena lortu berritan. AIURRI

ANDOAIN Euskal Ligako debuta Allurralde kiroldegan

Gipuzkoako ligan hamalau partidatik hamaika irabazi ostean, igoerako ligaxka jokatu dute berriki Basaurin. Bertan lortu zuten Euskal Ligan aritzeko txartela. Asteburu honetan, Etxeberria eta Duarteren mutilek Allurralden egingo dute debuta. Harmailak jendez betetzeko deia luzatu du klubak.
Otsailak 3, larunbata. 17:30, Leizaran Urdina-Urdaibai. Allurralde.

OSTEGUNA 8

ANDOAIN Ostegun Gizona

Ikasleen ospakizuna. Egitaraua, 10. orrialdean.
Arratsaldean hasita.

LARUNBATA 10

ANDOAIN, URNIETA Inauteriak

Ospakizuna bi udalerritan.
Egitaraua, 10. orrialdean.
Egun osokoa.

IGANDEA 11

ANDOAIN Inauteriak

Eguerdian hasi eta iluntzerarte, bigarren moztro-eguna. Sardinaren segizioarekin amaituko da jaia. Egitaraua, 10. orrialdean.
Egun osokoa.

URNIETA Antzezlan

"Arrainak bihotzean" ikuskizuna taularatuko du Mar Mar Teatroa Konpainiak.
17:30, Sarobe. Euskaraz.

"Mugitu zaituz!" orientaziorako doako zerbitzua Andoain

Jarduera Fisikoan orientazioa jasotzeko zerbitzua aukera izango dute andoaindarrak, Andoaingo Udalarren eta Osasun Etxearen eskutik. Zerbitzuaren xehetasunak:

- Orientatzailea: Ion Leonet.
- Doakoa izango da.
- Hitzordua eskatu beharko da Osasun zentroan (943 006 670), Arraten (943 590 174) edo Allurralden (943 300 014).

Udal agiritegia eskuratzeko zerbitzu berria martxan

Makina ipini dute Andoain, Anbrozia Olabiden. Herritar guztiak sarbidea izango dute Nortasun Agiria edota B@kQ ziurtagiria sartuta. Eskainiko dena:

- Ordainduta eta ordaindu gabe dauden ordainagiriaren kontsulta eta inprimaketa.
- Errolda ziurtagiriak.
- Ordainagiriaren ordainketa.
- Sarrera erregistroa egiteko aukera.


ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Otsailak 12, astelehena.
ANDOAIN
Andoaingo anbulatorioan hitzordu berria: 16: 30etik 20: 30era.
Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua hartu behar da astelehen goizean bertan 943 00 78 84 telefono zenbakira deituz.



ZINEMA


**ANDOAIN****BASTERO**

Valle de sombras
Lar, 3. 19:30, 22:00.
Ig, 4. 19:30.
Astl, 5. 19:30, 22:00.

Patrick

Lar, 3. 17:00.
Ig, 4. 17:00.

La tierra prometida (The Bastar)
Lar, 10. 19:30, 22:00.
Ig, 11. 19:30.
Astl, 12. 19:30, 22:00.



SINOPSIS

**Valle de sombras**

Zuzendaria: Salvador Calvo. **Aktoreak:** Miguel Herran, Susana Abaitua, Alexandra Masangkay, Ivan Renedo, Stanzin Gonbo, Morup Namgyal... **Herrialdea:** Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, abenturak. **Iraupena:** 120 min.

Abentura eta drama, uztartuta

Himalayako mendikatea, 1999. Quiquek, Clarak eta Lucas txikiak lehen oporrak igaro dituzte elkarrekin Indiako iparraldean. Gau batean, bidelapur batzuen eraso bortitza jasaten dute. Bertako biztanle

batek Quique erreskatatu eta herrixka isolatu batera eraman du. Zibilizazioa itzultzeko aukerarik gabe, negua iritsi arte egon beharko du, herrixkatik irteteko bide bakarra eratu ahal izateko: ibai izoztua.





Tolosako Paper Eskola. HIEO

Frantsesa eta ingelesa, Hizkuntza Eskola Ofizialean

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaindarrentzat Hezkuntza Saileko erreferentziatzeko Hizkuntza Eskola Ofiziala Tolosakoa da, eta, dagoeneko, frantsesa eta ingelesa ikasteko matrikulazioepe berria zabalik dago. Adi, otsailaren 7an itxiko baita. Aspetete beranduago, hilaren 14an, onartutakoen zerrenda argitaratuko dute. 16 urtetik gorakoei zuzendutako eskaintza da, A2, B1, B2 eta C1 mailatan trebatzeko aukerarekin. Matrikulazioaren prezioa 36 eurokoa da.

Aurrez aurreko informazio zerbitzua eskaintzen dute. Xehetasun gehiago nahi dituenak eskura du Tolosako gunearen arreta zerbitzurako telefono-zenbakia: 943 69 75 60.



2019ko edizioko kartela. AIURRI

Martxoaren 8ko egitaraua ilustratzeko kartel lehiaketa

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalaren Berdintasun Sailak egitarau oparoa antolatuko du, eta portadaren aukeraketa lehiaketa bidez egiten dute. Deialdian Gipuzkoan bizi eta 16 urtetik gora duten emakume guztiek parte har dezakete. Ezinbestekoa da kartelean "Martxoak 8 - Emakumeen Nazioarteko Eguna. Andoain 2024" esaldia agertzea. Ez da beste mezurik idatziko.

Parte hartzeko epea datorren otsailaren 15ean amaituko da. Basteron bertan aurkeztu behar dira lanak. Sari bakarra izango da, 500 eurokoa, Salkinera atxikitutako dendetan kontsumitzeko. Dagoeneko oinarriak argitaratu ditu Udalak.



Fayez Badawi. JULIA MOLINA

Palestinaren Askapenerako kideen hitzaldia Andoainean

Erredakzioa ANDOAIN

PAHF-FPLP Palestinaren Askapenerako Herri Fronteak Ekialde Hurbilean gertatzen ari denari buruzko hitzaldia eskainiko du ostegun honetan, Andoaingo Gaztetxean. 19:00tan hasita, hizlari ariko dira Fayez Badawi PAHF-FPLP erakunde-ko militante zein bozeramaile ohia eta Adnan Barghouti Ramallah-ko biztanlea. Antolatzailea Jarki Antolakundea erakundea da, "sionismoaren aurka eta Palestinaren askapeneraren alde" ageri dena. Iragarri dute, hitzaldian "PLP-k sionismoaren aurka eduki duen papera eta Zisjordaniako bizimodua eta egoeraren gainean mintzatuko dira".



SD EUSKALDUNA

Inklusibitate jardunaldia, Ubitarten

Pozarren zeuden Euskaldunako arduradunak Futbol Inklusiboko Topaketa amaitu berritan. Mezu hau zabaldu zuten, sare sozialetan: "Giro ezinhobean, esperientzia berri eta aparta bizi ahal izan genuen! Mila esker parte hartu zenuten guztioi, baita Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioari. Ea laster beste elkar ikusten garen berriro!".



SD EUSKALDUNA


Ikusleek botoa eman dezakete "Andoain Laburrean" lehiaketan

Laburmetrai gustukoena bozkatzeko aukera dute ikusleek, datorren otsailaren 8a bitarte

Erredakzioa ANDOAIN

Bederatzi lan aurkeztu dira aurtengo 'Andoain Laburrean' edizioan. Sari bat baino gehiago banatuko da, horien artean, Ikuslearen saria. Andoaingo Udalak Youtuben ikusgai jarri ditu bideoak, eta Aiurriko komunitatea atalean Andoaindarrak Euskaraz izeneko gunean bozkatzeko aukera dago. Epea datorren otsailaren 8an amaituko da.

Ikusleen aldetik boto gehien jasotzen duen lanak 150 euroko saria irabaziko du.



MATRIKULA LIBREA

HIZKUNTZA ETA MAILA ESKAINTZA

2024

Frantsesa eta ingelesa
A2 - B1 - B2 - C1

Matrikula eskaera egiteko epea:
Otsailaren 1etik 7ra (13:00ak arte)

Gutxieneko adina:
16 urte 2024an betetzea

Prezioa:
36,18€

www.eitolosaheo.hezkuntza.net
info@eitolosaheo.net - 943 69 75 60

INFORMAZIOA

PROTAGONISTA



Antonio Goia, bazkideek oparitu zizkioten txapela eta makilarekin. AIURRI

“Sasoiko nabilen artean segiko dut elkartearen lanean”

ANTONIO GOIA ARTOLA PEÑA SANTA KRUTZ ELKARTEKO KIDEA

Sotolari edo "bodeguero" gisa egiten duen lan nekazina aitortu zioten Santa Krutz elkartearen kideek, aurreko larunbatean. Ezustean hartu zuen omenaldia

Xabier Lasa ANDOAIN

Peña Santa Krutz elkartearen bazkideek Antonio Goia Artolari (Hernialde, 1945) esker ona agertu zioten larunbatean, 25 urtez elkartearen alde egindako lanagatik. Azken 25 urteetan “bode-

geroa”, sotolaria edo ardandegizaina izan da, eta gainera, elkartearen eguneroko martxan inplikatu den pertsona izan da beti, eskuzabala, erabat.

Ezustean harrapatu zuten Goia bera, larunbat eguerdian elkar-

tearen kanpoaldera hurbildu zenean. Bere biloba Unax Goia- ren dultzainaren hotsekin egin zioten, lehenbiziko, harrera. Urkiko Ane Fernandezek agurra dantzatu ostean, Santa Krutz Martxa jo zuten danbor-joleek.

Harrera horretarako, konplize izan zituzten Alberto Agirre abesbatza eta Olagain Txistulari elkarteak. Goiari txapela dotore-dotorea eta makila oparitu zizkioten elkartearen bazkideek. Ekitaldia igarota, egun berezian bizitakoa azaldu dio Aiurri astekariari.

Ez omen zenuen espero...

Bazkideek dena prestatu zuten, azken xehetasuneraino, ni ez nadin ohartu zer zebilkiten eskuartean. Willy Alcalak eta Nerea Buenok goiz pasako txangora gonbidatu gintuzten emaztea (Margari Elizondo) eta biok Goierrri aldeko herrixketan ibiltzeko. Bazkaltzera, Andoainera itzultzeko asmoz. Bien bitartean, elkartearen beste gainerakoek harrera antolatzen denbora har zezaten. Nik ezerean errezelorki eduki ez! Horrela, iritsi gara elkartera 13:00etan, eta hor ikusi dut jende pila Kale Nagusian, elkartearen bandera zintzilikatuta, danbor-joleak... “Jendea erotu dek” pentsatu nuen nire artean. Poliki-poliki joan nintzen ohartzen zertan zebilkitzen! Zer esango dut, bada, bihotza ederki ukitu zidala egin zidaten aitortzak!

Sebastian Lizaso bertsolariak ere bi bertso bidali zizkizun.

Ilusio polita egin zidan gogoratu zelako nirekin, eta nolako bertsoak! Ez dakit mereziak ditudan errimetara eraman dituen arrazoiak... Urtero etortzen da elkartera beste bertsolari batekin bikotea osatuz, euskararen egunarekin bat eginez antolatzen den bertso afarira. Bertsolari aparta izateaz gain, jatorra da benetan gizona!

“Hik elkarte bizi egiten dek, eta barrutik bizitu” dio bertso batean.

Argi dago eguneroko ardurak eta konpromisoa hartuta baldin badauzkat elkartearekin, gogoz etortzen naizelako dela. Nire bigarren etxea dela esango nuke. Emazteak errieta txikia egiten dit etxean baino denbora gehiago egiten dudala elkartearen, eta ez zaio arrazoia falta (barreak).

Juantxo Arregik, presidente zen garaian batzar batean bolutarioak eskatu zituen, eta neuk eskua altxatu nuen. Gerroztik, “bodegero”aren ardurak hartzeaz gain, elkartearen sortzen diren ekimenetan ahal dudana guztia egiten dut.

Esate baterako, jende ugari biltzen duten ospakizun berezietan, Jose Mari Carballo, Miguel Alvarez eta Gorka Nogales ederki asko aritzen dira sukaldaritzan, eta niri “metre” lanak egokitzen zaizkit nolabait. Bazkari edo afari jendetsuetan “Eseri hadi, Antonio!” agintzen didate maiz, baina ez hori da posible, beti ibili beharra dagoerne, bati ez bada besteari faltako baitzaio zerbait beti!

Zein izaten da zure zeregin, elkartearen?

Kontsumitutako generoa edo edariak birkokatu, kontsumitu dena eta ordaindu dena bat izan dadin kontrola eraman, gaika antolatutako hondakinak birziklatzeko edukiontzietara eraman... Goizero-goizero, 08:00ak aldera bertaritzen naiz elkartera, eginkizun horri ekiteko. Igual 10:00ak jotzen didate akordatzera. Ez dirudi itxura batean, baina neketsua izaten da lana. Ondarretako Eroskin eman zidaten erosketa-orga zaharra ederki etortzen zait beirazko botilak Bastero ondoko edukiontzira eramateko! Dena esatera, zuzendaritzako kideren batek beti lagundu ohi dit zeregin horietan, asteburuetan. Eta bestalde, elkartearen garbiketaren, berez, kontratatutako bi langilek egiten dute. **Jendea jabetzen al da sotolari baten elkartearen betetzen duen zereginaz?**

Nekez, batzuek! Ez du ikusgarritasunik ardurak horrek, baina ezinbestekoa da elkarte baten eguneroko martxan.

Omenaldi ekitaldia, agur gisa uler-tu behar al dugu?

Laster, otsailaren 4an, urteko batzarra ospatuko dugu elkartearen, eta handik irtetzen den zuzendaritza berriak erabaki beharko du aurrerantzean ere onartzen nauten ala ez. Baietz uste dut, ezerean gorabeherarik ez bada, behinik behin. Egin beharreko lanak baitira. Sasoko nabilen bitartean, segiko dut elkartearen artean bezalatsu, gustura, gainera!

“PEÑA SANTA KRUTZ ELKARTEA NIRE BIGARREN ETXEA DELA ESANGO NUKE”